



## Debako Udalaren adierazpena

Gaur, astelehena, irailaren 2a, arratsaldeko 18.00etan, Debako Udalean ordezkariak duten alderdi guztien bilkura ospatu da. Bertan, honako adierazpena onartu dute:

Irailaren 1ean, igandea, zenbait margoketa agertu ziren gure herriko hainbat txokotan. Pintaketa mehatxagarriak, arrazistak eta matxistak.

Honen guztiaren aurrean, Debako Udalak honako hau adierazi nahi du:

- Gogor gaitzesten dituela igandean Debako hainbat gunetan agertutako mehatxu eta mezu iraingarriak.
- Elkartasuna adierazi nahi diela mehatxatuak eta irainduak izan diren kolektibo eta herritarrei.
- Zuzenean mehatxatua izan den Gilen Garciari, Debako alkateari, babes osoa adierazi nahi diola.
- Deba herri anitza dela, bertako Udalak herritar guztien eskubideak babesten jarraituko duela eta horrelako mehatxuek ez dutela tokirik, ez Deban eta ez inon.
- Debako Udalak jarraituko duela elkartasunean oinarrituta politikak egiten, uste dugulako herri justua dela gure herrira datozen migratzaileei bizitzeko baldintza duinak eskaintzen diena, eta jendarte justuagoa egiteko helburuz politika feministak sustatuko dituela.
- Bat egiten duela herritarrek eta eragileek deituriko mobilizazioekin eta horietan parte hartzera dei egiten dugu.

El domingo 1 de septiembre aparecieron algunas pintadas en varios lugares de nuestra localidad. Pintadas amenazantes, racistas y machistas.

Ante todo ello, el Ayuntamiento de Deba quiere manifestar lo siguiente:

- Que rechaza firmemente las amenazas y mensajes ofensivos aparecidos el domingo en varios lugares de Deba.
- Que quiere mostrar su solidaridad a la ciudadanía y los colectivos que han sido amenazados y ofendidos.
- Que quiere mostrar su total apoyo a Gilen García, alcalde de Deba, quien ha sido amenazado directamente.
- Que Deba es una localidad plural. Su ayuntamiento continuará defendiendo los derechos de todos a ciudadanía y que tales amenazas no han lugar ni en Deba ni en ningún otro sitio.
- Que el Ayuntamiento de Deba continuará desarrollando políticas basadas en la solidaridad. Porque creemos que es un pueblo justo el que ofrece condiciones de vida dignas a los inmigrantes que vienen a nuestro pueblo. Y que promoverá políticas feministas con el objetivo de hacer más justa la sociedad.
- Que se une a las movilizaciones convocadas por la ciudadanía y colectivos sociales, y llamamos a tomar parte en ellas.

Deban, 2019ko irailaren 2an

En Deba, a 2 de septiembre de 2019